

## JARRAIBIDEAK:

Har ezazu A aukera edo B aukera, eta osorik egin.

Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

## A AUKERA: PLATON

Irudika itzazu gizon batzuk, lurpeko leize moduko egoitza batean. Leize horrek dauka sarrera, bere zabalera guztian, argirantz begira. Pentsa ezazu bertan daudela umetatik, hankak eta lepoa kateaturik, beti leku berean, eta aurrera baino begiratu ezinik, eta, lokarriak direla eta, euren buruak ezin itzulirik. Bestalde, gizon hauen atzealdetik urrunean eta goitik **suargi bat** bizturik, eta bide bat goialdean suaren eta atxilotuen artean; ikusazu baita ere bide horren luzeran eginiko harrésitxo bat, titiriteroek jendearen aurrean jartzen duten estalkiaren antzekoa, zeinen gainetik gauza harrigarriak erakusten dituzten.

- Badakusat.

-Harresi horren luzeran, ikus itzazu, bada, gizaki batzuen **itzalak**, harresia gainditzen duten edotariko tresnak eramaten, eta baita giza irudi batzuk ere eta harrizko edo zurezko animalia batzuk eta eginiko guztitariko gauzak ere; eta berezko denez, garraiari hauen artean batzuk hizketan joango dira eta beste batzuk ixilik.

- Hara nolako ikuskizun eta atxilotu bitxiak aipatzen dituzun.

- Gure antz-antzekoak dira. Lehenengo eta behin, uste ote duzu honako hauek eurei buruz edo besteei buruz ezer ikusi dutenik suak aurrean daukaten leize-hormara jaurtikitzen dizkien itzalak baino besterik?

-Nola, buruak geldu edukitzera behartuak izan badira bizitza osoan?

-Eta eramaten dituzten gauzei buruz, zer? Ez ote da gauza bera gertatuko?

-Zer bada?

-Eta euren artean hitzegiteko gai balira ez al duzu uste agertzen zaizkien gauzei buruz dihardutela uste izango dutenik?

-Beharrezko.

-Eta espetxe horrek aurreko hormatik oihartzun egingo balu, zer? Eta igarotzen direnen artean inork hitzegin lezakeen bakoitzean, uste duzu agertzen zaizkien itzalak baino bestek hitzegiten diela uste izango dutenik?

-Nik neuk ez, Zeusarren.

-Era guztietara, beraz, honako hauek **ez dute egiazat ezer izango, eginiko gauzen itzalak baino.**

(Platon. *Errepublika*)

<b>1. Laburpena eta definizioak</b>	(Guztira: 3 puntu)
a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopiatu gabe	(0,75 puntu)
b) Zer adierazten du <i>suargiak</i> ?	(0,75 puntu)
c) Zer dira <i>itzalak</i> ?	(0,75 puntu)
d) Zer esan nahi du esaldi honek: <i>honako hauek ez dute egiazat ezer izango, eginiko gauzen itzalak baino</i> ?	(0,75 puntu)
<b>2. Garatu gai hau:</b> Platonen harpearen mitoa interpretatzea.	(3 puntu)
<b>3. Testuingurua eta alderaketa:</b>	(3 puntu)
a) Egilearen testuinguru historikoa, kulturala eta filosofikoa	(puntu 1)
b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo bat(zu)ek horri buruz esan du(t)enarekin.	(2 puntu)
(Funtsezkoa da beste egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe eta aurreko galderetan garaturikoa errepikatu gabe)	

OHARRA. Puntu bat gelditzen da honako hauengatik emateko: ortografia, sintaxia, aurkezpena, gai-antolamendua eta landutako material-kantitatearen bestelako ezaugarri formalak.

**JARRAIBIDEAK:**

Har ezazu A aukera edo B aukera, eta osorik egin.

Galdera bakoitzean duzu adierazia gehienezko puntuazioa.

**B AUKERA: ARISTOTELES**

Gizakia izaki soziala bada, erleak edo beste edozein animalia taldekoi baino gehiago, ageriko arrazoi honengatik da: **naturak**, esan ohi dugun bezala, **ez du ezer alferrrik egiten**, eta gizakia da animalia guztietan mintzamina duen bakarra. Ahotsa mina eta plazerraren seinale baita, eta horregatik daukate gainerako animaliek ere, zeren haien izaera mina eta plazerra hautemateraino iristen baita, bai eta hautemate horiek elkarri ezagutzera emateraino ere. Baina mintzamenaren bidez adierazten da zer den komenigarri eta zer kaltegarri, bai eta zer den bidezko eta zer bidegabeko ere. Eta honako hau du berezko ezaugarri gizakiak, beste animalia guztiakin alderatuz: berak bakarrik dauka onaren eta gaitzaren zentzua, bidezkoarena eta bidegabekoarena, eta gainerako balioena, eta hain zuzen gauza hauek guztiak komunean eratzen dute etxea eta hiria.

Izatez, beraz, hiria etxearen eta gu guztion aurrekoa da, **osotasuna nahitaez zatiaren aurrekoa delako**. Izan ere, osotasuna suntsituz gero, ez da ez oinik ez eskurik geldituko, izen ekibokoarekin ez bada, harrizko esku bat esan daitekeen bezala: ba esku hila izango da hori.

Gauza guztiak beren funtzio eta ahalmenen arabera definitzen dira, baina jada gehiago ez dituztenean dagozkien ezaugarriak, ezin daiteke esan gauzak berberak direnik, baizik eta izen bera dutela. Begibistakoa da, beraz, hiria izatez dela hiri, eta gizakiaren aurrekoa dela; zeren nor bere aldetik ez da moldatzeko gauza, eta, hortaz, gainerako zatien antzekoa da osotasunari begira. Eta gizartean bizitzeko gauza ez dena, edo bere nahikotasunagatik ezer behar ez duena, ez da hiriko kide, pizti bat edo jainko bat baizik.

Denok dugu izatez gizartean bizitzeko joera, baina hiria lehenengo eraiki zuenak ekarri zituen onura handienak. Zeren **gizaki** perfektua animalia guztietan onena baita; **legetik eta justiziatik baztertua, ordea, guztietan gaiztoena** (Aristoteles: *Politika*).

<p><b>1. Laburpena eta definizioak</b></p> <p>a) Egin testuaren laburpen txikia, ez lau lerro baino gehiagokoa, esaldiak kopia gabe</p> <p>b) Zer esan nahi du <i>naturak ez du ezer alferrrik egiten</i> esaldiak?</p> <p>c) Zer esan nahi du esaldi honek: <i>osotasuna nahitaez zatiaren aurrekoa da</i></p> <p>d) Zer esan nahi du esaldi honek: <i>gizakia legetik eta justiziatik baztertua, guztietan gaiztoena da</i></p>	<p>(Guztira: 3 puntu)</p> <p>(0,75 puntu)</p> <p>(0,75 puntu)</p> <p>(0,75 puntu)</p> <p>(0,75 puntu)</p>
<p><b>2. Garatu gai hau:</b> Politika aristotelikoa (hiria, estatua, gobernu moduak...).</p>	<p>(3 puntu)</p>
<p><b>3. Testuingurua eta alderaketa:</b></p> <p>a) Egilearen testuinguru historikoa, kulturala eta filosofikoa</p> <p>b) Garatu egile honen beste gai bat, eta alderatu beste filosofo bat(zu)ek horri buruz esan du(t)enarekin.          (Funtsezkoa da beste egile batek edo bik esan dutenarekin alderatzea edo loturak bilatzea, guzti-guztiak azaldu gabe, eta aurreko galderetan garaturikoa errepikatu gabe)</p>	<p>(3 puntu)</p> <p>(Puntu 1)</p> <p>(2 puntu)</p>